Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 26a, ostirala — 144 — Viernes, a 26 de julio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Ordiziako udalerrian euskara ikasteko edo hobetzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, 2024 urtekoa. BDNS (Identif.): 774551.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/774551).

1. *Oinarrien xedea.*

Oinarri hauen xedea da Ordiziako Udaleko Euskara Arloak kudeatzen dituen euskara ikasten edo hobetzen dihardutenentzako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea.

2. *Araudia.*

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako Ordiziako Udaleko Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Legea hartuko dira oinarri.

3. *Onuradunak.*

16 urtez gorako Ordizian erroldutako nahiz erroldatu gabeko herritarrak. Erroldatu gabekoen kausan, gutxienez sei hilabetez egon behar dute lanean Ordiziako enpresa, merkatal establezimendu edota kirol-talde batean, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako.

4. *Finantzaketa.*

Aurreikusitako zenbatekoa guztira 26.000 €-koa da eta Ordiziako Udaleko 1 480.02.335.00.0141 2024 partidari egotziko zaio.

5. *Eskaerak non aurkeztu.*

— Aurrez aurre, Ordiziako Udaleko Herritarren Arreta bulegoan, Kale Nagusia 24.

— Elektronikoki, udal webgunetik: www.ordizia.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@kQ, NAN elektronikoa, Izenpe txartela...) edukitzea beharrezkoa da.

Ordizia, 2024ko uztailaren 4a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
(5323)

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Bases reguladoras y convocatoria de subvenciones para el aprendizaje y perfeccionamiento de euskera en el municipio de Ordizia, año 2024. BDNS (Identif.): 774551.*

Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da, eta horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/774551).

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las subvenciones que gestiona el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Ordizia para las personas que estudien o perfeccionen euskera.

2. *Normativa aplicable.*

La concesión de las ayudas y la relación jurídica entre el otorgante y la persona beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza Reguladora de las Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia y la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.

3. *Personas beneficiarias.*

Personas empadronadas o no empadronadas en Ordizia mayores de 16 años. En el caso de no empadronadas, deberán estar trabajando al menos seis meses en una empresa, establecimiento comercial o club deportivo de Ordizia, a la fecha de finalización del curso para el que se solicita subvención.

4. *Financiación.*

El importe total previsto asciende a 26.000 €, imputables a la partida 1 480.02.335.00.0141 2024 del Ayuntamiento de Ordizia.

5. *Lugar de presentación de solicitudes.*

— Presencialmente, en la oficina de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Ordizia, Kale Nagusia 24.

— Electrónicamente, desde la web municipal www.ordizia.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@kQ, DNI electrónico, tarjeta Izenpe...).

Ordizia, a 4 de julio de 2024.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre.
(5323)

EK\CV GAO-I-2024-05323